

Lezon Kirolak direla eta ...

Arkonada, Zamora, Lopez Ufarte... Soilik futbolari hauen ize-nak entzuten dira, baina horietariko bakarra ere ez da geure herri-koa, Lezokoa. Lezon ez ote dago futbol ekipo edo antzeko gauzarik? Horixe baietz, badira. Hor daude Allerruko mutilak, euria egin na-hiz eguzkia atera pilotalekuan entrenatzen direnak.

Allerru elkartea, "kirol erregea" bultzatzen duen erakunde ba-karra izanik, 150 bat mutil mugitzen ditu.

Hainbeste jende mugitzeak berarekin arazo anitz ekarri ohi du, ekonomikoa lekuko. Baina agian arazo nagusia instalakuntza egoki batzu ez edukitzea litzateke, irakur ezak(-n) futbol zelaia. Insta-lakuntzena aspaldidanik datorren arazoa da, eta batzuetan projek-tuekin eta bestetan gabe, gauza da oraindik aidean dagoela kontu hau.

Arazo honek berarekin beste batzu dakar. Horietariko bat ekipo erregional bat ez edukitzea da, eta horren kariaz Lezoko mutil anitzek, gazte maila gainditu ondoren projekziiorik ez izateagatik, beste herrietako ekipoetara joan beharra.

Baina guzti horren gainera Lezotik lagun yayoak aterako dira. Hor ditugu: Uria (SANSE), Pazos (TOURING), eta Gipuzkoako selekzi-on jokatu duten beste batzu: Garmendia, Alzuguren, etab.

Arazo guzti hauei ahalik eta epe laburrenean irtenbidea ema-tea, eta mutilak orainarteko gogo eta entusiasmoarekin jarraitzea litzateke geure nahia. Zeren norbaitek esan zuen bezala: "garran-tzitsuena ez dira emaitzak, giroa eta ondo pasatzea baizik". Animu mutilak eta zorte onak!

HAU OTE DA BETIRAKO
LEZOKO FUTBOL ZELAIA ?

Juan Luis URKIZU

